

2018KO EROSKETA KARRUSELAREN ZOZKETETAN PARTE-HARTZE OINARRIAK

- Erosketak egiteko eta lehenengo zozketan parte hartzeko denboraldia irailaren 6tik 20ra izango da; bigarren zozketarako data irailaren 21etik urriaren 10era izango dira, eta hirugarren zozketarako urriaren 11tik 30era izango dira.
- Kupoi bakarra emango da 10€ baino gehiagoko erosketa bakoitzeko, izakinak amaitu arte. Denboraldi bakoitzean, kupoiek kolore ezberdinak izango dituzte, zozketak desberdintzeko.
- Kupoia bete beharko da (izena, bi abizenak, kontaktu telefonoa eta erosketa egindako saltokia) eta APILLeko gutunontzian (Zumalakarregi, 33 – 1. esk.) edo Udaletxean jarritako kutxan (Herriko Plaza) utzi beharko da.
- Denboraldi bakoitzean entregatutako kupoi guztien artean 2.000€-ko erosketa txartela zozketatuko da. Irabazleek esleitutako sarirako berezko zerga-betebeharrekin konplitu behar izango dute.
- 2.000€-ko hiru zozketak APILLeko bulegoan egingo dira, irailaren 21ean, urriaren 11n eta 31n, goizeko 12:00etan. Zozketa publikoari irekita izango da. Esku errugabe batek kupoi irabazlea eta bi erreserba aterako ditu. Baliozkoa ez izatekotan (daturen baten falta) beste kupoi bat aterako da. Zozketetako egun beretan, behin irabazlearen izena aterata, zorionekoari abisatuko zaio. Sariaren irabazleari emandako kontaktu telefonoan informatuko zaio. Irabazleak APILLen aurkeztu beharko du kupoiari dagokion egindako erosketaren tiketa.
- Zozketatik hurrengo astelehenero 14:00etan irabazlearekin harremanetan jartzea ezinezkoa izango den kasuan edo aurkezten ez badu dagokion zozketa denboraldiaren erosketa tiketa, aukeratutako lehenengo erreserba sariaren irabazlea izatera pasatuko da eta telefonoz abisatuko zaio. Erreserba honek hurrengo eguneko 14:00ak arte bere saria onartzeko epea izango du. Lehenengo erreserbarekin kontaktatzea ezinezkoa izatekotan eta adierazitako ordua pasata, ateratako bigarren erreserbara pasatuko da, prozedura bera jarraituz.
- Epe hau igaroz gero, saria esleitugabetzat joko da eta elkarteak honekin egokiena iruditzen zaiona egin ahal izango du.
- Erosketa txartelak kontsumitzeko egunak hauek izango dira: irailaren 27an, urriaren 18an eta azaroaren 8an, lehenengo, bigarren eta hirugarren zozketarako, hurrenez hurren. 2000€-ko sari bakoitza saltoki parte-hartzaileetan osorik gastatu beharko da goiz batean (irabazlearen ordezkari bat izendatzeko aukera emango da, irabazleak berak egun horretan ezin badu saria trukatu) hurrengo mugekin:
 - 500€ gehienez saltoki batean
 - 300€ gehienez hiru saltokietan
 - Gainerako saltokietan erosketen balioa 20 eta 100€ bitartean izango da.